



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko urriaren 30a

89. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako kooperatibei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeari dagozkion FMko irrati komertzialetako batek, gutxienez, euskara hutsean emititzea berma dezan. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak bazter utzia (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Osasun kontseilariak Nafarroako Ospitaleko D pabiloiaren sarreran dagoen euskarazko errotulazioa noiz aldatzeko asmoa duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

—Galdera, Sorogainen naturako turismo-gune bat garatzeko abian jarri nahi den planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

—Galdera, Lurralde Behatokiarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako kooperatibei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako kooperatibei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2006ko irailaren 22ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“9.1 artikulua. Estatuetan ezarri ahalko da kooperatibaren barrenean batzorde, atal eta taldeen eraketa, funtzionamendua eta jarduna, betiere eginbehar berezietarako, zein bere ustiapen kontu berezituarekin eta ezertan ukatu gabe kooperatibaren erantzukizun orokor eta bateratua.

2. Estatutuen bidez arautu beharko dira bai politika berezitzen aplikazioa –kapital-interesen, aurrerakinen edo hirugarrenetikiko eragiketen prezioen ondorioetarako–, bai soberakinen banaketa berezitua bai ataleko kontseilu edo batzordeak izanen ote diren ere.

3. Batzar orokorrak nahiz kooperatibaren administratzaileek batzordeen, atalen eta taldeen erabakiak berehala bertan behera uztea erabaki ahalko dute, eta jasota utziko dute zer arrazoi dituzten erabaki horiek legez kanpokotzat, estatutuen aurkakotzat edo kooperatibaren interes orokorraren aurkakotzat jotzeko.

4. Atalen bat duten kooperatibak beharturik egonen dira urteko kontuen auditoria egitera.”

Zioak: Jarduteko mugak argitzea, sektorez sektore.

2. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluari hiru idatz-zati gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Estatutuen bidez arautu beharko dira bai politika berezitzen aplikazioa –kapital-interesen, aurrerakinen edo hirugarrenetikiko eragiketen prezioen ondorioetarako–, bai soberakinen banaketa berezitua bai ataleko kontseilu edo batzordeak izanen ote diren ere.

3. Batzar orokorrak nahiz kooperatibaren administratzaileek batzordeen, atalen eta taldeen erabakiak berehala bertan behera uztea erabaki ahalko dute, eta jasota utziko dute zer arrazoi dituzten erabaki horiek legez kanpokotzat, estatutuen aurkakotzat edo kooperatibaren interes orokorraren aurkakotzat jotzeko.

4. Atalen bat duten kooperatibak beharturik egonen dira urteko kontuen auditoria egitera.”

Zioak: Jarduteko mugak argitzea, sektorez sektore.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluari lau idatz-zati, 2.a, 3.a, 4.a eta 5.a, gehitzeko zuzenketa.

“2. Estatutuen bidez arautu beharko dira bai politika berezitzen aplikazioa –kapital-interesen, aurrerakinen edo hirugarrenetikiko eragiketen prezioen ondorioetarako–, bai soberakinen banaketa berezitua, bai ataleko kontseilu edo batzordeak izanen ote diren ere.

3. Batzar orokorrak nahiz kooperatibaren administratzaileek batzordeen, atalen eta taldeen erabakiak berehala bertan behera uztea erabaki ahalko dute, eta jasota utziko dute zer arrazoi dituzten erabaki horiek legez kanpokotzat, estatutuen aurkakotzat edo kooperatibaren interes orokorraren aurkakotzat jotzeko.

4. Atalen bat duten kooperatibak beharturik egonen dira urteko kontuen auditoria egitera.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 11. bis, gehitzeko zuzenketa.

“11. bis artikulua. Kooperatiba motak

Lehen mailako kooperatibak honela sailkatu ahalko dira:

- a) Nekazaritzako kooperatibak.
- b) Lan elkartuko kooperatibak.
- c) Etxebizitza kooperatibak.
- d) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak.
- e) Kredituko kooperatibak.
- f) Zerbitzuko kooperatibak.
- g) Irakaskuntzako kooperatibak.
- h) Aseguruko kooperatibak.
- i) Garraioko kooperatibak.
- j) Osasungintzako kooperatibak.
- k) Hezkuntzako kooperatibak.
- l) Gizarte ongizateko kooperatibak.
- m) Gizarte ekimeneko kooperatibak.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testua ordezteko zuzenketa. 14. artikulua testuaren ordeze honako hau proposatzen da:

“14. artikulua: Kooperatiben alde aurreko kalifikazioa.

Foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz eginko estatutuen proiektuaren aldeko kalifikazioa eskatu ahalko diote sustatzaileek Nafarroako Kooperatiben Erregistroari.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

6. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“20.1 artikulua. Kooperatibek bi bazkide izanen dituzte gutxienez.”

Zioak: Kooperatiben mugimenduan horri buruz dagoen sentsibilitateari erantzutea, mikrokooperatibak sortzea errazte aldera. Hori da, hain zuzen ere, Extremadurako Legebiltzarrean egun tramititzen ari den lege proiektuan jasotzen den proposamena. Eta hori da, esate baterako, erantzukizun mugatuko sozietateetako eta erantzukizun mugatuko lan-sozietateetako erreferentzia.”

7. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

20. artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da idatzirik:

“1. Kooperatibek bi bazkide izanen dituzte gutxienez.”

Zioak: Kooperatiben mugimenduan horri buruz dagoen sentsibilitateari erantzutea, mikrokooperatibak sortzea errazte aldera. Hori da, hain zuzen ere, Extremadurako Legebiltzarrean egun tramititzen ari den lege proiektuan jasotzen den proposamena. Eta hori da, esate baterako, erantzukizun mugatuko sozietateetako eta erantzukizun mugatuko lan-sozietateetako erreferentzia.

8. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Muga gehiegizkoa eta alferrekoa da.

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

22.2 artikuluko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“2. Onarpen...ulertuko da.

Onarpena ezin izanen da onartu edo ukatu sozietatearen helburuari begira diskriminazio arbitrario edo bidegabe bat dakarten arrazoiak direla medio.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

10. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

35. artikuluko 1. idatz-zatian lerrokada bat gehitzeko zuzenketa:

35. artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da idatzirik:

“1. Kooperatibak non duen helbidea, herri hartan eginen da batzar orokorra, edo Zuzendaritza Kontseiluak erabakitzen duen beste edozeinetan.

Lehenbiziko deialdian batzarra baliozkotasunez eratua dagoela ulertuko da sozietatearen botoen erdia baino gehiago bertaratuak edo ordezkatuak daudenean, eta bigarren deialdian, berriz, bertaratuaren kopurua kooperatiba bakoitzaren estatutuetan ezarritakoa denean. Kontsumoko eta nekazaritzako estatutuetan hirugarren deialdi bat aurreikusi ahalko da, zeinaren bidez batzar orokorra egin ahalko baita zein ere den bertaratutako edo ordezkaturako boto kopurua.

Estatutuetan zehaztuko dira batzarrak egiteko arauak, deialdia egiteko epeak eta publizitatea eta funtzionamendu normal baterako argibide guztiak. Dena den, ez da aldez aurretiko deialdirik behar, bazkide, atxiki eta bazkide laguntzaile guztiak bertan egonda aho batez erabakitzen badute batzarra egitea, gai zerrenda finkatu ondoren.”

Zioak: Batzarra egin ahal izateko hirugarren deialdia egiteko aukera jasotzea estatutuetan, aldez aurretik ezarritako quorumera iristeko beharrik gabe.

11. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

35. artikuluko 2. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide bakoitzak boto bat izateko eskubidea izanen du, ezertan ukatu gabe foru lege honetan kooperatiba mota batzuentzat xedatutakoa.

Edozein modutan ere, boto plurala ezarri ahal da estatutuetan, aldi berean sozietate kooperatibo diren bazkideentzat. Horrelako kasuetan, estatutuetan argi eta garbi finkatuko dira bazkide horien boto eskubidea mugatzeko irizpideak.”

Zioak: Bide ematea kooperatiben arteko integrazio-tresna horiei, beste legedia batzuetan ezarriarik baitaude eta kooperatiben integrazioarako garrantzi handikoak baitira.

12. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

35. artikuluko 2. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“35.2 artikulua. Lehen lerrokada. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide bakoitzak boto bat izateko eskubidea izanen du, ezertan ukatu gabe foru lege honetan kooperatiba mota batzuentzat xedatutakoa.

Edozein modutan ere, boto plurala ezarri ahal da estatutuetan, aldi berean sozietate kooperatibo diren bazkideentzat. Horrelako kasuetan, estatutuetan argi eta garbi finkatuko dira bazkide horien boto eskubidea mugatzeko irizpideak.”

Zioak: Bide ematea kooperatiben arteko integrazio-tresna horiei, beste legedia batzuetan ezarriarik baitaude eta kooperatiben integrazioarako garrantzi handikoak baitira.

13. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 35.2 artikuluen testuaren ordezkari testu hau jartzea proposatzen da:

“2. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide bakoitzak boto bat izateko eskubidea izanen du, ezertan ukatu gabe foru lege honetan kooperatiba mota batzuentzat xedatutakoa.

Edozein modutan ere, boto plurala ezarri ahal-ko da estatutuetan, aldi berean sozietate kooperatibo diren bazkideentzat. Horrelako kasuetan, estatutuetan argi eta garbi finkatuko dira bazkide horien boto eskubidea mugatzeko irizpideak.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

14. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“45.2 artikulua. Bazkide bakoitzaren ekarpenak ez dira inolaz ere izanen sozietatearen kapitalaren ehuneko 25 baino handiagoak, salbu eta hamar bazkide baino gutxiago dituzten lehen mailako kooperatibetan, orduan ehuneko 33koa izanen baita muga, eta sozietate kooperatiboan, irabazi asmorik gabeko erakundeen edo kooperatibek partaidetzaren gehiengoa duten sozietateen kasuan. Ekarpn horiek eskudirutan, espezetan eta ondasun eta eskubidetan egin ahalko dira, azken horietan Zuzendaritza Kontseiluak baloratuta.”

Zioak: Kooperatiben integrazio edo taldekatze prozesuetan malgutasunez jokatu behar da barne harremani begira.

15. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Bazkide bakoitzaren ekarpenak ez dira inolaz ere izanen sozietatearen kapitalaren ehuneko 25 baino handiagoak, salbu eta hamar bazkide baino gutxiago dituzten lehen mailako kooperatibetan, orduan ehuneko 33koa izanen baita muga, eta sozietate kooperatiboan, irabazi asmorik gabeko erakundeen edo kooperatibek partaidetzaren gehiengoa duten sozietateen kasuan. Ekarpn horiek eskudirutan, espezetan eta ondasun eta eskubideetan egin ahalko dira, azken horietan Zuzendaritza Kontseiluak baloratuta.”

Zioak: Kooperatiben integrazio edo taldekatze prozesuetan malgutasunez jokatu behar da barne harremani begira.

16. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluan beste idatz-zati bat, 13.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“45.13 artikulua. Kooperatibek jasotakoak menpeko finantzaketatzat joko dira baldin eta, kredituen lehentasunen ondorioetarako, hartzekodun arrunt guztien atzetik geratzen badira.

Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin kontratatutako menpeko finantza-ekarpenak sozietatearen kapitaltzat hartuko dira, eta ez dute inolaz ere sozietatearen organoetan botoa emateko eskubiderik sortuko.

Ekarpn horiek –ordainketa finkoa, aldakorra zein partaidetzakoa izan ahalko baita– kontuko idatzoharren edo tituluen bidez ordezkatu dira.

Zuzendaritza kontseiluak onetsi ahalko du ekarpn horien kontratazioa, baldin eta ez bada jaulkipena sailean egiten edo ez bada, kooperatibaren estatutuen arabera, funtsezko aldaketarik egiten egitura ekonomikoan.

Ekarpn horien jaulkipena edo kontratazioa –inola ere ez ehuneko 50 baino gutxiago– kooperatibako bazkideei eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie hirugarrenei eskaini aitzin, kooperatibetan batzar orokorren deialdiei dagokienez ezarrita dagoen publizitatearen parekoarekin.

Ekarpn nahitaezkoak eta borondatezkoak beste bazkide bati edo hirugarrenei eskualdatzearen ondorioetarako, ekarpenak menpeko finantza-ekarpen bilakatu ahal izanen dira, baldin eta administratzaileak alde aurretik ados jartzen badira eta sozietatearen estatutuek aukera hori ematen badute.”

Zioak: Beste legedia batzuetan jadanik badauden irizpideak jasotzea, garrantzi handikoak baitira kooperatibek finantza-baliabideak lortzeko gaitasuna hobetu dezaten.

17. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluari beste idatz-zati bat, 13.a, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“13. Kooperatibek jasotakoak menpeko finantzaketatzat joko dira baldin eta, kredituen lehentasunen ondorioetarako, hartzekodun arrunt guztien atzetik geratzen badira.

Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin kontratatutako menpeko finantza-ekarpenak sozietatearen kapitaltzat hartuko dira, eta ez dute inolaz ere sozietatearen organoetan botoa emateko eskubiderik sortuko.

Ekarpen horiek –ordainketa finkoa, aldakorra zein partaidetzazkoa izan ahalko baita– kontuko idatzoharren edo tituluen bidez ordezkaturiko dira.

Zuzendaritza kontseiluak onetsi ahalko du ekarpen horien kontratazioa, baldin eta jaulkipena ez bada sailean egiten edo ez bada, kooperatibaren estatutuen arabera, funtsezko aldaketarik egiten egitura ekonomikoan.

Ekarpen horien jaulkipena edo kontratazioa –inola ere ez ehuneko 50 baino gutxiago– kooperatibako bazkideei eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie hirugarrenei eskaini aitzin, kooperatibetan batzar orokorren deialdiei dagokienez ezarrita dagoen publizitatearen parekoarekin.

Ekarpen nahitaezkoak eta borondatezkoak beste bazkide bati edo hirugarrenei eskualdatzearen ondorioetarako, ekarpenak menpeko finantza-ekarpen bilakatu ahal izanen dira, baldin eta administratzaileak alde zuzenetik ados jartzen badira eta sozietatearen estatutuek aukera hori ematen badute.”

Zioak: Beste legedia batzuetan jadanik badauden irizpideak jasotzea, garrantzi handikoak baitira kooperatibek finantza-baliabideak lortzeko gaitasuna hobetu dezaten.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluari beste idatz-zati bat, 13.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“kooperatibek jasotakoak menpeko finantzaketatzat joko dira baldin eta, kredituen lehentasunen ondorioetarako, hartzekodun arrunt guztien atzetik geratzen badira.

Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin kontratatutako menpeko finantza-ekarpenak sozietatearen kapitaltzat hartuko dira, eta ez dute inolaz

ere sozietatearen organoetan botoa emateko eskubiderik sortuko.

Ekarpen horiek –ordainketa finkoa, aldakorra zein partaidetzazkoa izan ahalko baita– kontuko idatzoharren edo tituluen bidez ordezkaturiko dira.

Zuzendaritza kontseiluak onetsi ahalko du ekarpen horien kontratazioa, baldin eta jaulkipena ez bada sailean egiten edo ez bada, kooperatibaren estatutuen arabera, funtsezko aldaketarik egiten egitura ekonomikoan.

Ekarpen horien jaulkipena edo kontratazioa –inola ere ez ehuneko 50 baino gutxiago– kooperatibako bazkideei eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie hirugarrenei eskaini aitzin, kooperatibetan batzar orokorren deialdiei dagokienez ezarrita dagoen publizitatearen parekoarekin.

Ekarpen nahitaezkoak eta borondatezkoak beste bazkide bati edo hirugarrenei eskualdatzearen ondorioetarako, ekarpenak menpeko finantza-ekarpen bilakatu ahal izanen dira, baldin eta administratzaileak alde zuzenetik ados jartzen badira eta sozietatearen estatutuek aukera hori ematen badute.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

19. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluari beste idatz-zati, 13.a, bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“13. Kooperatibek jasotakoak menpeko finantzaketatzat joko dira baldin eta, kredituen lehentasunen ondorioetarako, hartzekodun arrunt guztien atzetik geratzen badira.

Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin kontratatutako menpeko finantza-ekarpenak sozietatearen kapitaltzat hartuko dira, eta ez dute inolaz ere sozietatearen organoetan botoa emateko eskubiderik sortuko.

Ekarpen horiek –ordainketa finkoa, aldakorra zein partaidetzazkoa izan ahalko baita– kontuko idatzoharren edo tituluen bidez ordezkaturiko dira.

Zuzendaritza kontseiluak onetsi ahalko du ekarpen horien kontratazioa, baldin eta jaulkipena ez bada sailean egiten edo ez bada, kooperatibaren estatutuen arabera, funtsezko aldaketarik egiten egitura ekonomikoan.

Ekarpen horien jaulkipena edo kontratazioa –inola ere ez ehuneko 50 baino gutxiago– kooperatibako bazkideei eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie hirugarrenei eskaini aitzin, kooperatibetan batzar orokorren deialdiei dagokienez ezarrita dagoen publizitatearen parekoarekin.

Ekarpen nahitaezkoak eta borondatezkoak beste bazkide bati edo hirugarrenei eskualdatzearen ondorioetarako, ekarpenak menpeko finantza-ekarpen bilakatu ahal izanzen dira, baldin eta administratzaileak alde zuzenetik ados jartzen badira eta sozietatearen estatutuek aukera hori ematen badute.”

Zioak: Kooperatibek finantza-baliabideak lortu ahal izan ditzaten, beharrezkoak dira zuzenketa honetan proposatzen diren aurreikuspenen gisa-koak, beste legedia batzuetan jadanik badaude-nak.

20. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“4. Kooperatibaren estatutuetan ezarritakoari jarraikiz ordainduko zaizkie bazkideei sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenak, dela batzar orokorrek sozietatearen kapitala murriztea erabaki duelako, dela bazkideak baja eman duelako, dela jarduera kooperatibizatua murriztu delako.

4 bis artikulua. Estatutuek arautuko dute sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenak atzera eskuratzeko eskubidea, bazkidearen baja gertatzen denean, beti ere ondoko arau hauei jarraikiz:

a) Beti deduzituko dira, eta inolako mugarik gabe, ekitaldi ekonomikoan izandako galerak eta metatutakoak, halakorik balitz, baita Foru Lege honen 23.3 artikuluan arautzen diren kapitalizatu gabeko zenbatekoak ere.

b) Egozketa kasuetan eta arrazoitu gabeko bajak gertatzen direnean, derrigorrezko ekarpenen ehuneko 30 eta ehuneko 20ko kenkariak, hurrenez hurren, ezar daitezke, baina borondatezko ekarpenetan ez da inolako kenkaririk egiterik izan.

c) Itzulketarako epea gehienez ere bost urtekoa izanzen da, edo batekoa heriotza gertatuz gero, eta bazkideek edo haien eskubidedunek itzuli gabeko diru kopuruari dagokion diruaren legezko korrituak ere hartzeko eskubidea izanzen dute.

Itzulketa bazkide batek baja eman duelako egiten baldin bada, baja zer ekitalditan gertatu zen, ekitaldi hartako urteko kontuak onetsi ondotik baino ezin izanzen da erabaki itzulketa. Hori guztia, dena den, ez da oztopo izanzen itzulketa aurreratuak egin ahal izateko; halakoetan, kooperatibak bazkideari ordaindutako konturako aurrerakintzat hartuko da itzulketa.

4 ter artikulua. Bazkideak jarduera kooperatibizatua murrizteak ez du ekarriko sozietatearen kapitalari egindako ekarpenen itzulketa partzialerako eskubidea, zein ere den jarduera murrizteko arrazoa eta behin betikoa izanda ere kooperatiban baja ematen ez badu, non eta estatutuetan horretarako bidea espresuki jasotzen ez den.”

Zioak: Kapitala itzultzeari buruzko araubidearen zenbait alderdi zalantzarri argitzea.

21. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“46. artikulua. Idatz-zati berria: Kooperatibaren estatutuetan ezarritakoari jarraikiz ordainduko zaizkie bazkideei sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenak, dela batzar orokorrek sozietatearen kapitala murriztea erabaki duelako, dela bazkideak baja eman duelako, dela jarduera kooperatibizatua murriztu delako.”

Zioak: Kapitala itzultzeari buruzko araubidearen zenbait alderdi zalantzarri argitzea.

22. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 4. idatz-zatiaren amaieran lerroka-da bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“46.4 artikulua. Lerrokada berria. Itzulketa bazkide batek baja eman duelako egiten baldin bada, baja zer ekitalditan gertatu zen, ekitaldi hartako urteko kontuak onetsi ondotik baino ezin izanzen da erabaki itzulketa. Hori guztia, dena den, ez da oztopo izanzen itzulketa aurreratuak egin ahal izateko; halakoetan, kooperatibak bazkideari ordaindutako konturako aurrerakintzat hartuko da itzulketa.”

Zioak: Kapitala itzultzeari buruzko araubidearen zenbait alderdi zalantzarri argitzea.

23. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

46. artikuluan beste idatz-zati bat, 5.a, gehitze-ko zuzenketa. Hona testua:

“Bazkideak jarduera kooperatibizatua murrizteak ez du ekarriko sozietatearen kapitalari egindako ekarpenen itzulketa partzialerako eskubidea, zein ere den jarduera murrizteko arrazoia eta behin betikoa izanda ere kooperatiban baja ematen ez badu, non eta estatutuetan horretarako bidea espresuki jasotzen ez den.”

Zioak: Kapitala itzultzeari buruzko araubidearen zenbait alderdi zalantzarri argitzea.

24. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

46. artikuluari idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“5. Estatutuetan ezarri ahalko da bazkide batek sozietatearen kapitalari borondatez eginiko ekarpenen itzulketa partziala egin behar izatea, baldin eta bazkide horrek jarduera kooperatibizatua murrizten badu.

Jardueraren murrizketa partziala eta ekarpenen itzulketa partziala soilik izanen dira efektiboak baldin eta kooperatibaren estatutuetan jasota badaude.”

Zioak: Jarduera kooperatibizatuaren murrizketa kasu erreala eta garrantzitsua da, ekarpenaren murrizketa ekar dezakeena, eta, beraz, kasu hori aurreikusi behar da.

25. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

46. artikuluari idatz-zati bat, 6. bis idatz-zatia, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“6. Bazkide bati dirua itzultzea bazkideen batzar orokorrak erabaki beharko du; hala ere, konturako diru-itzulketa aurreratutako egin ahalko dira.”

Zioak: Aurreratutako diruaren itzulketa, esaterako heriotzagatiko bajaren kasuetan, malgua izan behar da.

26. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

51. artikuluko 3. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Hezkuntza eta sustapen funtsa banaezina da eta honelaxe eratua dago:”

Zioak: Ondasun bat bahigarria edo bahiezina izatea jurisdikzio izaerako beste lege esparru bati dagokio, lege organikoaren mailako xedapenek araututa egon ohi dena, besteak beste, Botere Judizialaren Lege Organikoa, Prozedura Zibileko Legea. Prozedura Kriminaleko Legea, eta abar. Laburbilduz, “bahiezina” hitza kendu behar da.

27. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

51. artikuluko 3. idatz-zatiko azken lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Hezkuntza eta sustapen funtsa sortu zen helbururako baino ez da erabiliko. Funts hori bere helburuetara bideratuko da, bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibei, kooperatiben elkarteei edo irabazi asmorik ez duten ekonomia sozialeko entitateei diru hori funtsa sortu zen helbururako erabiltzeko baldintzapean ematen, edo bestela, entitate kooperatiboak berak zuzenean bideratuko du.”

Zioak: Funts horren erabilera sortu zen helburuarekin lotuta dago, eta lotura horrek dituen betebeharrak betetzeko bideak argi eta zuzenak izan behar dira.

28. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

51.3 artikuluko azken lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

51.3 artikulua. Azken lerrokada. “Funts hori beste entitate batzuen bidez bidera daiteke bere helburura, baldin eta entrega baldintzatua badago kasuan kasuko zenbatekoak hezkuntza eta sustapen funtserako legez ezarritako helburuetakoren batera bideratzera.”

Zioak: Eite juridiko berariazkoak zehaztea baino, jarduteko modu horrek ez dituela legezko helburuak itxuraldatzen ez dituela argitzea da garrantzitsuena.

29. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

51. artikuluko 3. idatz-zatiko azken lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Funts hori beste entitate batzuen bidez bidara daiteke bere helburura, baldin eta entrega baldintzatua badago kasuan kasuko zenbatekoak hezkuntza eta sustapen funtserako legez ezarritako helburuetakoren batera bideratzera.”

Zioak: Eite juridiko berariazkoak zehaztea baino, jarduteko modu horrek ez dituela legezko helburuak itxuraldatzen ez dituela argitzea da garrantzitsuena.

30. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54.2 artikulua ondo testua kentzeko zuzenketa.

“Hori egitea...” jartzen duen tokitik “aurkeztu beharko dira” jartzen duen tokira

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

31. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluari beste idatz-zati bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa.

“Prozedura informatikoen bidez edo egoki diren beste prozeduren bidez egindako idatzohar eta idazpenak ere onartuko dira; geroztik, zenbakitu eta koadernatuko dira derrigorrezko liburuak egiteko. Liburu horiek ekitaldi ekonomikoaren urteko kontuak onetsi eta bi hilabete igaro baino lehen eginbidetzera aurkeztu beharko dira.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

32. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa. Hirugarren lerrokada bat gehitzea proposatzen da. Eduki hau izanen luke:

“Era berean, segurtasun teknologikoak ahalbidetuko duenean, informazio hori prozedura informatiko eta elektronikoen bidez ere tramitatzea onartuko da.”

Zioak: Teknologia berriak erabiltzea.

33. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko 2. idatz-zatiari lerrokada berri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Era berean, segurtasun teknologikoak ahalbidetzen duenean, informazio hori prozedura informatiko eta elektronikoen bidez ere tramitatzea onartuko da.”

Zioak: Kooperatiben Erregistroan egiten diren tramite guztiak, liburuaren eginbidetzea barne, epe labur edo ertainean prozedura informatikoen bidez egiteko aukera izatea, betiere, teknologiak bai administrazioari bai administratuari segurtasuna bermatzen badie.

34. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66.1 artikuluko 2. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

66.1 artikulua. Bigarren lerrokada. “Norberaren lanaren prestazioa kontratatzeko legezko gaitasuna dutenak izan daitezke horietako bazkide. Bazkide langilearen izaera galtzeak berekin dakar kooperatiban lana egiteari behin betikoz uztea.”

Zioak: Beharrezkoa iruditzen zaigu lan elkartuko kooperatibei buruz dagoen araubidea aldatzea, halako moldez non argi geratuko den bazkide-izakerak lehentasuna duela langile-izaeraren aldean, gure inguruko legedi guztietan gertatzen den bezala; hori horrela, lan elkartuko kooperatiba bateko langile-izaera soil-soilik galdu ahal izan

behar da kooperatibako bazkide-izaera galduz gero.

35. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66. artikuluko 1. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Langilearen izaera galtzeak berekin dakar bazkidearen izaera ere galtzea” dioen lekuan “bazkidearen izaera galtzeak berekin dakar lana egiteari uztea” esan behar du.

Zioak: Bazkide langileek kooperatibarekin duten lotura sozietate-izaerakoa da. Irizpide hori erabiltzen dute estatuko legeak eta autonomia erkidego batzuetako legeak, besteak beste, Valentiakoak, Aragoikoak eta EAekoak.

36. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 66.1. artikuluko ondoko testua kentzea proposatzen da:

“Langilearen izaera galtzeak...” jartzen duen tokitik “..ere galtzea” jartzen duen tokira.

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

37. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 66.1 artikuluko bigarren lerrokadan ondoko testua gehitzea proposatzen da:

“Norberaren (...) bazkide.

Bazkide langilearen izaera galtzeak berekin dakar kooperatiban lana egiteari behin betikoz uztea.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

38. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Lan elkartuko kooperatibak dira pertsona fisikoek, nork bere lanaren bitartez, ondasun edo zerbitzuak ekoiztea helburu duen jarduera ekonomiko edo lanbidezko bat egiteko asmoz osatzen dituztenak.

“Norberaren lanaren prestazioa kontratatzeko legezko gaitasuna dutenak izan daitezke horietako bazkide. Bazkidearen izaera galtzeak berekin dakar lana egiteari uztea”.

Zioak: Bai kooperatiben printzipio orokorrak bai estatuko eta autonomia erkidegoetako legeria konparatuak bazkidearen izaera langilearen izaeraren gainetik jartzen dute; beraz, lehenengo izaera galtzeak berekin dakar bigarrena galtzea eta ez alderantziz.

Nafarroan langilearen izaera bazkidearen izaeraren gainetik jartzearen ondorioz, beste autonomia erkidegoetan ez bezala, lan arloko legeria aplikatzean, lan harremana eteteak berekin dakar bazkidearen izaera galtzea, eta ez alderantziz.

39. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 66.4 artikulua aldatzea proposatzen da:

“Bazkide langileek eskubidea dute “lan aurrerakinak”-soldatatzat hartzen ez direnak- izeneko diru sarrerak aldizka jasotzeko, hilabete baino lehen, kooperatibaren soberakinen kargura, jardura kooperatibizatuan duten parte-hartzearen araberak.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

40. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Aldaketaren testua:

“Bazkide langileek eskubidea dute “aurrerakin sozialak” izeneko diru sarrerak aldizka jasotzeko, hilabete baino lehen, kooperatibaren soberakinen kargura; eta horiek laneko soldatek dituzten berme berberak izanen dituzte.”

Zioak: Lan elkartuko kooperatiben helburua lanpostuak sortzea da, eta lan horiek berez soldata behar dute; zentzu horretan, eta langilearen duintasunagatik, nahiz eta bazkidea izan eta baita horregatik ere, diru ordaina jasotzea eskubide besterenezina da; eskubide hori ezin da egon ezta batzarraren gehiengoaren iritziaren menpe ere.

41. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66.6 artikulua aldatzeko zuzenketa:

66.6 artikulua testu hau izanen du:

“Zuzendaritza Kontseiluko kideen hautaketa Batzar Orokorrean eginen da eta bazkide langile bakoitzak boto pertsonala izanen du.

Mota honetako kooperatibek berrogeita hamar bazkide langiletik gora dutenean, gizarte kontseilu bat eratzea aurreikusi beharko dute, bazkide langileen ordezkari organo gisa, lan harremanen gaineko alderdi tekniko eta sozial guztietan Zuzendaritza Kontseiluari aholku eta informazioa emateko.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

42. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Zuzendaritza Kontseiluko kideen hautaketa bazkideen Batzar Orokorrean eginen da eta bazkide langile guztiek boto pertsonala izanen dute. Kooperatiba bakoitzeko estatutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kideen kopurua zehaztuko da. Hauteskunde-sistemak heinekotasunaren printzipioa islatu beharko du gutxiengoak edo gutxiengoek ordezkari bermatua izan dezaten, betiere, botoen % 10 gainditzen badute. Boto-ordezkari kooperatiben estatutuaren arautuko da, eta botoa beste bazkide baten esku baino ezin izanen da utzi.

Berrogeita hamar bazkide langiletik gora duten lan elkartuko kooperatibek, gizarte kontseilu bat izanen dute parte-hartzerako organo gisa, bazkideen batzarrak hautatua; Gizarte Kontseiluaren oinarriko eginkizunak izanen dira harreman soziolaboralen gaineko alderdi tekniko eta sozial guztietan Zuzendaritza Kontseiluari aholku eta informazioa ematea.”

Zioak: Zuzendaritza Kontseilua hautatzeko sistemak heinekotasunaren printzipioari jarraitu behar dio gutxiengo aipatu entitatean erabat baztertua izan ez dadin.

Gizarte Kontseilua parte-hartze sozialerako eta kontrolerako organo gisa arautu behar da.

43. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66.10 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hau da testu berria:

66.10 artikulua. “Laneko jurisdikzioa eskuduna izanen da kooperatibaren eta lan bazkideen artean gerta daitezkeen gatazketan, baita haren esku-menekoak izanik zerikusia duten haietan ere. Ondorioz, lan- eta bazkidetasun-lotura berezi horretan oinarrituak ez diren gatazkek, edozein bazkideren eta bestelako kooperatiben artean sor daitezkeenen parekoak direnek, arlo zibileko epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean segitzen dute.

Edozein kasutan ere, auzi horiek ebazte aldera lehentasunez aplikatuko da lege hau, estatutuak eta kooperatibaren gainerako barne-erabakiak eta, oro har, kooperatiba-printzipioak. Halakorik ez denean, lan-arloko legediko xedapenak aplikatuko dira, analogia erabiliz.

Zioak: Jurisdikzio-barruti zibil eta sozialari lotu beharreko auziak argitzea, eta espresuki jasota uztea ezen, kooperatibek beren bazkide langileen lan-araubidea ezartzeko duten ahalmenarekin bat, kooperatibaren barne araudiak lehentasuna duela lan-arloko legediaren aldean.

44. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66. artikuluko 10. idatz-zatian honakoa gehitzeko zuzenketa:

Hau da proposatzen den testua:

“10. Laneko jurisdikzioa eskuduna izanen da kooperatibaren eta lan bazkideen artean gerta daitezkeen gatazketan, baita haren eskumenekoak izanik zerikusia duten haietan ere. Ondorioz, lan-eta bazkidetasun-lotura berezi horretan oinarrituak ez diren gatazkek, edozein bazkideren eta bestelako kooperatiben artean sor daitezkeen parekoak direnek, arlo zibileko epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean segitzen dute.

Edozein kasutan ere, auzi horiek ebazte aldera lehentasunez aplikatuko da lege hau, estatutuak eta kooperatibaren gainerako barne-erabakiak eta, oro har, kooperatiba-printzipioak. Halakorik ez denean, lan-arloko legediko xedapenak aplikatuko dira, analogia erabiliz.

Zioak: Jurisdikzio-barruti zibil eta sozialari lotu beharreko auziak argitzea, eta espresuki jasota uztea ezen, kooperatibek beren bazkide langileen lan-araubidea ezartzeko duten ahalmenarekin bat, kooperatibaren barne araudiak lehentasuna duela lan-arloko legediaren aldean.

45. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66.10 artikulua aldatzeko zuzenketa:

66.10 artikulua testu hau izanen du:

“1. Kooperatibaren eta haren bazkide langileen artean gerta daitezkeen auziak (bazkide langileak diren aldetik) ebatziko dira ondokoak lehentasunez aplikatuz: lege hau, kooperatiben estatutuak eta barne araudia, kooperatibako organoek hartutako erabaki baliozkoak eta kooperatiba-printzipioak. Auzi horiek lan-arloko jurisdikzioan ebatziko dira, Lan Prozedurari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuko 2.ñ) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Auziak lan-arloko jurisdikziora bidaltzean, lan elkartuko kooperatibaren eta bazkide langilearen artean jarduera kooperatibizatutik eratorritako eskubide eta beharrekin lotutako auzi guztiak, lan-arloko jurisdikzioaren organoen eskumenekoak izanen dira.

2. Laneko aferetan eta lanaren ondorioetan oinarritzen ez diren gatazkak eta lan elkartuko kooperatiben eta edozein bazkideren artean sor daitezkeenak –bazkideak langile gisa dituen eskubideak ukitzen ez dituztenak–, jurisdikzio zibilaren esku geldituko dira.

3. Bazkide batek 1. idatz-zatian aipatzen diren kasuekin lotutako edozein demanda egiteko, alde aurretik kooperatiba barruko bidea agortu beharko du; bitartean, jarduketak egiteko edo eskubideak berresteko ezarrita dauden preskribitzeko eta iraungitzeko epeen zenbaketa bertan behera geldituko da.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

46. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66. artikuluko 10. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“a) Lan harremanak direla-eta kooperatibaren eta bazkide langileen artean sortutako gatazkak edo auziak laneko jurisdikzioaren esku geldituko dira, Lan Prozedurari buruzko Legearen 2.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

b) Sozietate-harremanean oinarritutako gatazkak edo auziak, lan harremanekin lotura ez dutenak, jurisdikzio zibilaren esku geldituko dira, betiere, kooperatibaren estatutuetan ezarritako tramitea amaitu ondoren.”

Zioak: Laneko jurisdikzioak lan harremanekin –horiei ere aplikatzekoa zaie lanari buruzko oinarritzko legeria– lotutako guztiari buruzko “erakarpen indarra” badu ere, era berean, luzaezina ere bada, eta beraz, lan harremanekin lotura ez duten gai sozialak jurisdikzio zibilaren esku geldituko dira.

Lan prozedurari buruzko 2. artikuluko c) letran bereizketa hori egiteko aukera ematen da honakoa esaten denean: jurisdikzio sozialak kooperatiben eta haren bazkideen arteko auziak ebatziko ditu “kooperatiba bakoitzaren araudian ezarritakoari jarraikiz”

47. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66. artikuluko 11., 12. eta 13. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

48. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

66. artikuluko 11, 12 eta 13. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lan elkartuko kooperatibak pertsona fisiko kolektibo gisa definitzen dira, eta hala agertzen da 66. artikuluko 1. idatz-zatian. Beraz, sozietate kooperatibo bat beste kooperatiba baten barruan badago, bigarren mailako kooperatiba bihurtzen da, eta bigarren mailako kooperatibak lege proiektu honen 80. artikuluan arautzen dira.

49. ZUZENKETA

mixto

66.11 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

66.11 artikulua. "Sozietate kooperatiboa den bazkide batek kapitalari egindako ekarpenak sozietatearen kapitalaren ehuneko 25etik gorakoak izan ahalko dira, kooperatibak duen bazkide kopurua gorabehera."

Zioak: Kooperatiben integrazio edo taldekatze prozesuetan malgutasunez jokatu behar da.

50. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

66. artikuluko 11. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

"11. Sozietate kooperatiboa den bazkide batek kapitalari egindako ekarpenak sozietatearen kapitalaren ehuneko 25etik gorakoak izan ahalko dira, kooperatibak duen bazkide kopurua gorabehera."

Zioak: Kooperatiben integrazio edo taldekatze prozesuetan malgutasunez jokatu behar da barne harremanei begira.

51. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

70. artikuluko 1. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

70. artikulua. Zerbitzuen kooperatibak.

Enpresa zerbitzuen kooperatibak dira pertsona fisiko edo juridikoak elkartzen dituztenak eragiketak eta jarduerak egiteko, hain zuzen ere beste inolako kooperatibaren berariazko helburu izan gabe beren bazkideen ustiapenak edo lanbide jardunaren enpresa-eginkizunak, jarduna edo emaitzak osatzen, bermatzen edo errazten dituztenak.

Zioak: Zerbitzuen kooperatiba motak, foru legean jadanik jasota daudenak, era argiago eta berezituagoan ematea.

52. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

77. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa.

"preso ohiei, alkoholikoei eta toxikomanoei laguntza ematea, haiek gizarteratzea eta delinkuentziari aurrea hartzea" dioen lekuan "preso ohiei, alkoholikoei eta toxikomanoei laguntza ematea eta haiek gizarteratzea."

Zioak: Idatzita dagoen bezala uler daiteke zenbait herritar-talde etorkizuneko gaizkiletzat hartzen direla

53. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

77. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"a) Irabaziak ezin izanzen dira bazkideen artean banatu."

Zioak: Kentzeko eskatzen den esaldia "ekitaldi ekonomiko batean izaten diren"- nahasgarria izan daiteke; izan ere, gordean izan diren irabaziak, ekitaldi batzuetako irabaziak edo beste ekitaldi batekoak bana daitezkeela uler daiteke.

Gainera, artikuluko hori, aipatutako zatia kenduta, aurtengo apirilaren 11ko 5/2006 Foru Legearen bidez onetsi zen eta esaldi hori sartzea ez dago justifikaturik zioen azalpenean.

54. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

80. artikuluko 5. idatz-zatian lerrokada bat gehitzeko zuzenketa:

Hau da proposatzen den testua:

“5. Bigarren mailako eta maila handiagoko kooperatiben araubidea estatutuetan eta foru lege honetan nahiz aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan oro har ezarritakoa izanen da.

Bigarren mailako eta maila handiagoko kooperatiba baten sozietatearen kapitalari egindako nahitaezko ekarpenak bazkide bakoitzak harekin konprometitutako jarduera kooperatibizatuaren arabera eginen dira, estatutuetan ezartzen denarekin bat, dela bazkide kopuruari jarraikiz dela lehen mailako kooperatibetarako ezarritako irizpideei jarraikiz.”

Zioak: Irizpide koherenteak ematea, kooperatibari erabakitzeko tarte bat utziz bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatiba bat prestatu eta eratzerakoan.

55. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

81. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Kooperatiba bat beste kooperatiba-talde batean sartzeko edo talde horretatik banatzeko akordioa Nafarroako Kooperatiben Erregistroan jasoko da, kasuan kasuko sozietate kooperatiboari dagokion orrialdean, kooperatiba interesdunak hala eskatzen badu.

Kooperatiba bat beste kooperatiba-talde batean sartzeko edo talde horretatik banatzeak hirugarrenentzat ondorioak izanen ditu kooperatiben erregistroan jasotzen den unetik.”

Zioak: Segurtasun juridikoa merkataritza-trafiakoan eta kooperatibetako bazkideen eta hirugarrenen eskubideak.

56. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

81.5 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“81.5 artikulua. Talde batean sartzeko akordioa Nafarroako Kooperatiben Erregistroan jasoko da, kasuan kasuko sozietate kooperatiboari dagokion orrialdean.

Kooperatiba talde bateko kide izateari edo hartatik bereizi izanari buruzko idatzoharra kooperatiba interesdunak eskatuta eginen da. Idatzohar hori ez egoteak ez die eraginen artikuluko honetako manuen indarrari ez eraginkortasunari; halatan, artikuluko honetan ezartzen den araubidea eraginkorra izanen da hemen ezartzen diren baldintza materialak betetzen diren unetik beretik.”

Zioak: Argitzea kooperatiba-taldeak erregistroan jasotzearen eraginkortasuna.

57. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

81. artikuluko 5. idatz-zatian lerrokada bat gehitzeko zuzenketa:

5. idatz-zatia honela geldituko da:

“5. Talde batean sartzeko akordioa Nafarroako Kooperatiben Erregistroan jasoko da, kasuan kasuko sozietate kooperatiboari dagokion orrialdean.

Kooperatiba-talde bateko kide izateari edo hartatik bereizi izanari buruzko idatzoharra kooperatiba interesdunak eskatuta eginen da. Idatzohar hori ez egoteak ez die eraginen artikuluko honetako manuen indarrari ez eraginkortasunari; halatan, artikuluko honetan ezartzen den araubidea eraginkorra izanen da hemen ezartzen diren baldintza materialak betetzen diren unetik beretik.”

Zioak: Argitzea badirela integrazio maila ezberdinak kooperatiba taldearen kontzeptuaren baitan.

58. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

81.5 artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa:

“Kooperatiba-talde bateko kide izateari edo hartatik bereizi izanari buruzko idatzoharra kooperatiba interesdunak eskatuta eginen da. Idatzohar hori ez egoteak ez die eraginen artikulu honetako manuen indarrari ez eraginkortasunari; halatan, artikulu honetan ezartzen den araubidea eraginkorra izanen da hemen ezartzen diren baldintza materialak betetzen diren unetik beretik.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

59. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

81. artikuluan beste idatz-zati bat, 7.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

81.7 artikulua. “Kooperatiba-taldeak integrazio bidezko kooperatiba-talde edo lankidetzaren bidezko kooperatiba-talde izanen dira, duten integrazio ekonomikoaren maila zein den.

Integrazio bidezko kooperatiba-taldeetan beharrezkoa izanen da kooperatiba taldeak, bere osotasunean, zuzendaritza orokor bakarra izatea eta ekonomia-kudeaketako ahalmenen zentralizazio mailak bidea ematea ulertzeko ezen egiazko ekonomia-batasun bat osatzen dutela, nahiz eta entitateak juridikoki bereziak izaten jarraitu. Bestela, entitateen multzo horrek lankidetzaren bidezko taldea osatzen dutela ulertuko da.”

Zioak: Argitzea badirela integrazio maila ezberdinak kooperatiba taldearen kontzeptuaren baitan.

60. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

81. artikuluari beste idatz-zati bat, 7.a, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“7. Kooperatiba-taldeak integrazio bidezko kooperatiba talde edo lankidetzaren bidezko kooperatiba talde izanen dira, duten integrazio ekonomikoaren maila zein den.

Integrazio bidezko kooperatiba-taldeetan beharrezkoa izanen da kooperatiba-taldeak, bere osotasunean, zuzendaritza orokor bakarra izatea eta ekonomia-kudeaketako ahalmenen zentralizazio mailak bidea ematea ulertzeko ezen egiazko ekonomia-batasun bat osatzen dutela, nahiz eta entitateak juridikoki bereziak izaten jarraitu. Bestela,

entitateen multzo horrek lankidetzaren bidezko taldea osatzen dutela ulertuko da.”

Zioak: Argitzea badirela integrazio maila ezberdinak kooperatiba taldearen kontzeptuaren baitan.

61. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

81.7 artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa:

“7. Kooperatiba-taldeak integrazio bidezko kooperatiba talde edo lankidetzaren bidezko kooperatiba talde izanen dira, duten integrazio ekonomikoaren maila zein den.

Integrazio bidezko kooperatiba-taldeetan beharrezkoa izanen da kooperatiba taldeak, bere osotasunean, zuzendaritza orokor bakarra izatea eta ekonomia-kudeaketako ahalmenen zentralizazio mailak bidea ematea ulertzeko ezen egiazko ekonomia-batasun bat osatzen dutela, nahiz eta entitateak juridikoki bereziak izaten jarraitu. Bestela, entitateen multzo horrek lankidetzaren bidezko taldea osatzen dutela ulertuko da.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

62. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

81. artikuluari idatz-zati bat, 7., gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“7. Kooperatiba-taldea integrazio bidezkoa edo lankidetzaren bidezkoa izan daiteke.

Integrazio bidezko kooperatiba-taldeek bateratua izanen dituzte hirugarrenen aurreko erantzukizun juridikoa eta ekonomikoa, eta kudeaketa orokorrak egiteko ahalmena duen zuzendaritza bateratua izanen dute.

Lankidetzaren bidezko kooperatiba-taldeek bereizita izanen dituzte taldea osatzen duten kooperatiba bakoitzaren erantzukizun juridikoa eta ekonomikoa.

Kooperatiba-talde bat eratzeko momentuan integrazio bidezkoa dela zehazten ez bada, kooperatiba-talde hori lankidetzaren bidezkoa dela ulertuko da.”

Zioak: Kooperatiba-taldeen kontzeptua zorrotasunez arautu behar da.

63. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

84. artikuluko b) letrako hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“(…) desegin gabe dauden kooperatiben ehuneko 30, gutxienez, bildu beharko dituzte” dioen lekuan, hauxe behar du: “(…) desegin gabe dauden kooperatiben ehuneko 51, gutxienez, bildu beharko dituzte.”

Zioak: Bermatzea haren izenean Nafarroa izena daramaten kooperatiben federazioek mota horretako kooperatiben gehiengoa ordezkatzeko dutela.

64. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

84. artikuluko b) letrako laugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“(…) desegin gabe dauden kooperatiben ehuneko 30, gutxienez, bildu beharko dituzte” dioen lekuan, hauxe behar du: “(…) desegin gabe dauden kooperatiben ehuneko 51, gutxienez, bildu beharko dituzte.”

Zioak: Bermatzea haren izenean Nafarroa izena daramaten kooperatiben federazioek mota horretako kooperatiben gehiengoa ordezkatzeko dutela.

65. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

87. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa.

“(…) neurriak, legezkoak nahiz bestelakoak, aztertu, diktatu, proposatu edo gomendatzea” dioen lekuan hauxe behar du: “(…) neurriak, legezkoak nahiz bestelakoak, aztertu, diktatu, proposatu edo gomendatzea, onetsi aitzin”

Zioak: Bermatzea Nafarroako Kooperatiben Kontseiluak bere iritzia eman duela administrazioak erabakiak hartu aitzin.

66. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

87. artikuluko 2. idatz-zatiko d) letra aldatzeko zuzenketa.

“Kooperatiben deskalifikazioari buruz tramitatzeko diren espediente guztietan entzuna izatea” dioen lekuan hauxe behar du: “Kooperatiben deskalifikazioari buruz tramitatzeko diren espediente guztietan entzuna izatea, espedienteak ebatzi aitzin.”

Zioak: Bermatzea Nafarroako Kooperatiben Kontseiluak bere iritzia eman duela administrazioak erabakiak hartu aitzin.

67. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

87. artikuluko 4. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Testu horren ordezkariak jartzea proposatzen dugu:

“Nafarroako Kooperatiben Kontseiluko kideak Nafarroako Gobernuak eta kooperatiben batasunek hautatutako ordezkariak izanen dira, eta gutxienez hamar kide izanen ditu. Kooperatiben batasunek kideen ehuneko 70 hautatuko dute, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, ehuneko 30.”

Zioak: Gure ustez, Nafarroako Gobernuak ez du Nafarroako Kooperatiben Kontseiluaren kontrola izan behar.

68. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarriaren lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Nafarroako Gobernuak, berez edo Nafarroako Kooperatiben Kontseiluak proposaturik, (...) zenbaitkoak gaurkotu ahal ditu...” dioen lekuan “Nafarroako Gobernuak, berez –Nafarroako Kooperati-

ben Kontseilua entzun ondoren– edo aipatu kontseiluak proposaturik, (...) zenbatekoak gaurkotu ahal ditu,..." jarri behar da.

Zioak: Bermatzea Nafarroako Kooperatiben Kontseiluak bere iritzia eman duela administrazioak erabakiak hartu aitzin.

69. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, 4.a, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

"Laugarren xedapen gehigarria. Segurtasun teknologikoak ahalbidetzen duenean, Nafarroako Gobernuak aukera eman beharko du Kooperatiben Erregistroan liburuak eginbidetzeko tramitea –54.2 artikuluan ezarrita dago– prozedura informatiko edo elektronikoen bidez ere egin ahal dadin."

Zioak: Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak planteatu bezala, oso litekeena da Kooperatiben Erregistroan egiten diren tramite guztiak, liburuen eginbidetzea barne, epe labur edo ertainean prozedura informatikoen bidez egiteko aukera izatea, betiere, teknologiak bai administrazioari bai administratuari segurtasuna bermatzen badie.

Hori dela-eta, asmoa da foru lege berriak egoera hori aurreikustea, eta ondorioz, aukera hori sartzeari; Horrela, momentua iristen denean, ez da foru legea aldatu beharko aukera hori orain sartu ez delako.

70. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Segurtasun teknologikoak ahalbidetzen duenean, Kooperatiben Erregistroan liburuak eginbidetzeko tramitea –54.2 artikuluan ezarrita dago– prozedura informatiko edo elektronikoen bidez ere egin ahalko da."

Zioak: Teknologia berriak erabiltzea.

71. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"Laugarren xedapen gehigarria.

"Kooperatiben eta Kooperatiben Erregistroaren arteko harremanak, oro har, eta horien artean liburuak eginbidetzeko tramiteak, prozedura informatiko edo elektronikoen bidez ere egin ahalko dira."

Zioak: Gaur egun, administrazioaren aurrean egiten diren aitorpenak, esaterako Gizarte Segurantzari dagozkionak, sistema digitalaren bidez egin ohi dira.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeari dagozkion FMko irratikomertzialetako batek, gutxienez, euskara hutsean emititzea berma dezan.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeari dagozkion FMko irratikomertzialetako batek, gutxienez, euskara hutsean emititzea berma dezan".

Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak 2006ko urriaren 25ean eginda-

ko bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko irailaren 29ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun kontseilariak Nafarroako Ospitaleko D pabiloiaren sarreran dagoen euskarazko errotulazioa noiz aldatzeko asmoa duen jakiteko.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Osasun kontseilariak Nafarroako Ospitaleko D pabiloiaren sarreran dagoen euskarazko errotulazioa noiz aldatzeko asmoa duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Osasun kontseilariak Nafarroako Ospitaleko D pabiloiaren sarreran dagoen euskarazko errotulazioa noiz aldatzeko asmoa duen jakiteko. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Errotulazioan izandako akatsa atzemanda, errotulazio zuzena jartzeko agindua eman dugu.

“Jendearentzako Orduategia: 8etatik 22etara”

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Sorogainen naturako turismo-gune bat garatzeko abian jarri nahi den planari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Sorogainen naturako turismo-gune bat garatzeko abian jarri nahi den planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra, parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak hainbat galdera egin ditu Sorogaingo turismo-guneari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

- Erroibarko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanak ez badira Ingurumen kontseilariak esaten duen bezain estuak eta egokiak, aipatu plana atzera bota dela ulertu behar dugu?

Ingurumen Departamentuak proiektu bat laguntzea erabakitzen du proiektuaren helburu, interesa eta kalitateagatik eta departamentuaren lan ildoekin bat egiten duelako. Eta erabakietan ez du zerikusirik kontseilariak udaleko ordezkarietan duen harremanak.

Ildo horretan, nabarmendu behar da Erroibarko Udalak Sorogaingo egokitzapenari buruz aurkeztutako proiektuak jarduketa interesgarriak dituela baliabide naturalen erabilera iraunkorraren ikuspegitik; batez ere, basoko lurak erabilera publikoarentzat egokitzeari dagokionez eta gunen horien ingurumen balioa ezagutarazteari dagokionez. Horretaz gain, oso garrantzitsua da aurkeztutako proposamena bat etortzea, erabilera publikoa arautzeari dagokionez, abuztuaren 22ko 105/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Aldude mendiko kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko planean aurreikusitakoarekin. Dokumentu horren kopia erantsi dugu.

Onetsitako kontserbaziorako tresna batekin bat egiteak eta udalak Europako batasuneko finantzazioa lortzeak eragin dute departamentuak proiektua bultzatzeko lankidetzaren hitzarmena sina dezan.

- Ingurumen Departamentuak Turismorako informazio guneari dagokion gastua bere gain hartzen duela kontuan izanik, Ingurumen Departa-

mentuak aurrerantzean turismoarekin lotutako proiektu guztiak bere gain hartuko dituela ulertu behar al dugu?

“Turismorako informazio guneari” dagokionez, adierazi behar da departamentuak bere gain hartu duela Interregek kofinantzatu ez duen proiektuaren inbertsioa; hori horrela egin da informazio gunen hori Natura 2000 sareko alde horretako lekuri garrantzitsuenetako bat izanzen delako naturaren balioak zabalatzeko eta ezagutarazteko. Ez dago aurreikusita guneari kudeaketaz arduratzea, hori mendiko jabearen esku geldituko baita.

Ingurumen Departamentuak ez du inolako asmorik proiektu turistikorik bere gain hartzeko, hori beste departamentu batzuen zeregina baita. Mendi eta natura guneen erabilera publikoaren kudeaketa zuzena, ordea, departamentuak lagundu du eta lagunduko du.

- Zein dira kontseilariak aipatu dituen eta mila-kita pertsonen bisitatzen dituzten Nafarroako Batasunaren intereseko 41 lekuak?

Batasunaren intereseko 41 lekuak 2002ko maiatzaren 15eko Nafarroako Gobernuaren erabakian ezarritakoak dira; horiei gehitu behar zaie 2002ko martxoaren 4ko erabakian ezarritako beste bat. Bi erabakien kopia eta leku horiek zein diren eta non dauden ikusteko mapa erantsi ditugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 25ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, Lurralde Behatokiarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Lurralde Behatokiarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 87ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako Lurralde Behatokiaren jarduerari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroako Lurralde Behatokia jarri al da abian 2006. urtean zehar?

Halaxe da, Nafarroako Lurralde Behatokia abian jarri da.

2006ko martxoaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluak jardunerako eta antolamendurako barne erregelamendua onetsi zuen; erregelamenduko V. tituluaren Nafarroako Lurralde Behatokiari buruzko oinarriko xedapenak daude, gai hauen ingurukoak: behatokiaren xedea eta jarduketa esparrua, antolaketa eta eginkizunak, baliabideak eta kontseiluak egin behar duen kontrola.

Bilkura berean, Nafarroako Lurralde Behatokiaren kudeaketa "Navarra de Suelo Residencial, S.A." enpresa publikoari esleitzea aho batez onetsi zen. Horretaz gain, kontseiluak adierazi zuen ondoko hauek ezagutzen zituela: behatokiaren antolamendurako eta jardunerako barne jarraibideak zehazten zituen zirriborroa eta 2006ko ekitaldirako ekintza planen aurrerapena.

1. eranskinean, galderari begira interesa duen dokumentazioaren kopia erantsi dugu, hau da, Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluak 2006ko martxoaren 22an egindako bilkurari dagokiona:

- Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluko kideak
- Deialdia
- Bilkurako aktaren zirriborroa (onetsi gabe oraindik)
- Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluaren jardunerako eta antolamendurako erregelamendua
- Behatokiaren jarraibideak eta 2006ko ekin-tzen plana

2. Hala bada, zenbat bilera egin ditu? Zer helbururekin? Zer emaitza izan dituzte bilera horiek? Zeintzuk dira behatokiaren funtzionamenduari buruzko arauak? Zenbat langile eta zer baliabide ditu? Laburbilduz, behatokiak abian jarri zenetik eginiko jarduerari buruzko informazioa nahi dut.

- Nafarroako Lurralde Behatokiaren funtzionamenduari buruzko arauak dagokienez, ikus ezazu aurreko galderari emandako erantzunean aipatutako eta erantsitako dokumentazioa.

- Gaur egun dauden giza eta gauza baliabideak.

Nafarroako Lurralde Behatokia, Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua laguntzeko unitatea da, eta bere lana da aipatu erakundeak egiten duen erabaki lanetan laguntzea. Zehazki, dokumentazioa egitea dagokio, hala teknikoak nola administrazioakoa eta kontabilitatekoa, eta, halaber, batzorde iraunkorreko eta osoko bilkurako idazkariari laguntzea dagokio.

Aipatu dugunez, behatokia NASURSA enpresa publikoari esleitu zaio. Enpresa publiko horrek hitz eman du Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluak agindutako helburuak eta xedea betetzeko behar dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideez hornituko dela.

Hona hemen 2006-2007 eperako esleitutako langile teknikoak eta aurreikusten zaien dedikazioa.

- NASURSAko zuzendari kudeatzailea: Dedikazioa: %20. Idoia Madariaga López.
- Behatokiako koordinatzailea. Lurraldearen antolamenduko teknikaria. Dedikazioa: %75. Dámaso Munárriz Guezala.

- Behatokioko dokumentalista. Dokumentazioko teknikaria. Dediakzioa: %90. Enrique Domínguez Hernández.
- Komunikazioko teknikaria. web orriko analista. Dediakzioa: %90. Sonia Calvo López.
- NASURSAren administrazioko eta kudeaketa-ko zerbitzuak: administrariak, ekonomialariak, legelariak, arkitektoak.
- Abian jarri zenetik eginiko jarduerak.

2006-2007 eperako ekintza planari jarraikiz –2. eranskinean gehitu dugu planaren laburpena–, orain arte ondoko jarduerak burutu dira:

- Europako eta Espainiako behatoki eta lurralde institutuen antolamendu-ereduak aztertu.
- Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluaren eta Nafarroako Lurralde Behatokiaren jarduneko eta antolamendurako erregelamenduari buruzko zirriborroak egin. (ikus 1. eranskina).
- Irudi korporatiboa eta web gunea kontratazea (ikus III. eranskina).
- RFO Progresdec proiekturako (Interreg III C) proposamenak: RePlan eta Cu.T (ikus III. eranskina)
- Nafarroako Lurralde Behatokiaren jardueretan parte hartzeari begira, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin lankidetzak-hitzarmenak egiteko proiektuak. (ikus III. eranskina).
- Nafarroako Foru Komunitatean dauden informaziorako eta ikerketarako beste entitate batzuekin elkarlanean hasia (SITNArekin eta Nafarroako Estatistika Institutuarekin).
- Nafarroako lurralde dokumentazioko zentroa abian jartzea. (ikus III. eranskina).

– Pirinioen garapenerako plan estrategikoa. (ikus III. eranskina).

3. Behatokia ez bada abian jarri, zer jarduerak gauzatu ditu Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluaren menpeko unitate teknikoak 2006. urtean?

Ikus bigarren galderari emandako erantzuna.

4. Departamentuak aurkeztu al dio Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluari behatokiari buruzko proposamenik? Zer proposamen?

Ikus lehenengo galderari emandako erantzuna.

5. Zenbat bilera egin ditu Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluak 2006. urtean? Zein helburuekin? Zein da bilera horien gai zerrenda eta nor joan da bilera horietara?

2006. urtean, kontseiluak osoko bilera egin zuen martxoaren 22an; biluraren dokumentazioa lehenengo galderari egindako erantzunean dago.

Urriaren 6rako iragarrita dago kontseiluko batzorde iraunkorraren bilera; bilerako gai zerrendan daude behatokiaren 2006-2007 eperako ekintza plana onestea eta Pirinioen garapenerako plan estrategikoa onestea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 22an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

(Oharra: aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	